

Chichtularia - 8
Huchtularia Juearen Aintzinean

Xixtularia Aintzinean
10 10

Auzitegi bat
Juje bat, segretario batekin
Jandarmek gizon bat baderamate.

- Jujeak *ah!* Orain Bettiri Ziburu-ren alde *danya*
- Segretarioak Huna nun ekhartzen daukuten
- Jujeak Ziburu Bettiri, erranen daukuzu egia...
- Jandarmeak Jaun jujea, gizon hunek mintzoa galdua du, mutua da ahatea bezen
- Jujeak Mutu? Hau ederra dugu... Eta noiztik da mututua
- Jandarmak Ez dakit jaun jujea
- Jujeak Altxa ba galdetto zombait egin nahi niozke
- Bettirik huchtuz: Agur jaunak.
- Jujeak Zer duzu nola huchtuz artzeko
- Bettirik huchtuz berriz ere
- Segretarioak Aire hori ezagutzen dut: erran nahi du "Agur jaunak"
- Jujeak Ederki jauna. Bai eta zuri ere. Bainan nahiago nuke erran bezi-
netzat nola den zure deitura
- Bettirik huchtuz Ziburutik Sararat
- Segretarioak kantuz Ziburutik Sararat... Ziburu horra deitura eman dautzu
- Jujeak Ah, aitortu behar dugu gure gizon hau ez dela zozoa... Ea urrun
joanen garenaz gisa hortan? Zoin da zure izena
- Bettirik huchtuz...
- Jandarmak batek kantuz aire bera: Bettiri Uhartekoa ah qu'il etait bon chessen
- Jujeak Ederki. Jaun segretarioa, amaizu izen deiturak izkribuz: Bettiri
Ziburu... Eta orain, adichkidea, erradazu non sortu ziren
- Bettirik huchtuz....
- Jujeak airea ezaguturik) Saratarra naizela, orok badakite... (segretari)
emazu Saran.. (Bettiri-ri) Noiz?
- Bettirik huchtuz
- Segretarioak Baniz, mila zortzi ehun eta lanetan hogoiean (Kantuz p.18)
- Jujeak Ederki eta zoin hilabetez?

Bettirik huchtu

Jandarma bigarrenak) Maiatzak da urteko sasoin ederrena

Jujeak Izkiria zazu....Eta zoin egunez

Bettirik huchtu) kantuz p.100)

Segretarioak Ah...(kantatzen du:Salvatore gora da)....Salvatorez

Jujeak Horiek hola errazu zoin kantonamendian den zure herria...

Bettirik huchtu (kantuz p.100)

Jujea k kantuz) Espeleta herria...Segretario jauna,emazu Espeleta...
Eta departamendua ?

Bettiri huchtu:Bet ceu de Pau

Jandarmak Bet ceu de Pau...Basses-Pyrénées chef-lieu Pau...Denak jakinen ditugu...

Jujeak Ohointzaz ekarri zaituzte hunat,zer ebatsi duzu ?

Bettirik huchtu

Segretarioak kantuz) Oillanda gazte moko fier bat

Jujeak Ah,eta nun ebatsi duzu ?

Bettirik huchtu

Jandarma batek.-Ostiraletan duzu Garrozen merkatu...

Kujea k Ah,Garrozeko merka tuan.....Eta nori ?

Bettirik huchtu kantuz p. 164

Segretarioak Dama gazte charmant bat...

Jujeak Bai baina haren izena

Bettirik huchtu

Jandarma batek.-Intchautzpeko alaba dendaria

Jujeak Goizean ala arratsean

Bettirik....

Jujeak Goizean goizik jeiki ninduzun...Jaun segretarioa emaitzu denak izkribuz.

Segretarioak .Ari nuzu ari,jaun jujea

Jujeak Oillanda hori ebats eta zer egin zinu

Bettiri page 109)

Jandarma batek.-Partitunintzan herritik

Jujeak Eta nun jan zinuen ?

Bettirik kantuz page 26 edo 27)

Segretarioak Hantchet oihanean, oihan ederrean

Jujeak Eta zerk ekarri zaitu hola ohoin izaiteret

Bettirik page 164

Jendarma 2º Aitak eman zerauten zerurat joaiten...

Jujeak Zer ordaino baliosa ?

Bettirik huertu

Segretarioak Aitak eman daut doten, neurea neurea

Jujeak Joko parte, ez da irri egitekotik, ahalge behar zintazke.

Bettirik (kantuz p. 92)

Jendarma batek.- Egun oroz goizetan aratsetan, bethi nago pena doloretan

Jujeak Bai pena doloretan... Preso baitzira

Bettirik huertu

Segretarioak Berke jaunak bai dola dugu

Jujeak Adichkidea, ikusten mila plazerekin urrikitus zirela zure hutsaz
Hain poliki aitortu duzu guziak, non aldi hantako barkatzen
baitautat. Biber libratuko zaitut

Bettirik kantuz p. 123)

Jendarmak Chorikak kaiolen trichterik du kentatzen

Jujeak Ba i konprenitzen dut. Nehiago zinuke berehala partitu
Zer zaitzue zueri ?

Jendarma batek.- Puntsean, berke dakioko.

Bertzeak Ba, holako huertulari abile ez bide da uste ginuen bezain gaito.

Jujeak Eta zuk jaun segretarioa... Zer diozu ?

Segretarioak Nik uste dut bereri behar zaiola galdegin zer egin gogo kuen.

Bettirik huertu

Jujeak eta lagunak kantuz:- Goazen etcherat goazen etcherat erretira ordu da.

Jujeak Ontea da. Libro zira.... Bazoazke...

Bettirik huertuz "Agur jaunak eto..."
(etheratzeada, eta etherat orduko itzultzen da erdizka bezala
oihu eginez; - Milesker jaun jujea ")

Jujeak Urdea enganatu gaitu....
=====